

2018 APL. 24

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA.3469.....

- Bozkaitze
- kopie! - Alkatetza

OSASUNA TOLOSALDEAN

Gizarte Babeseko Euskal Sistemaz ari garenean, dispositibo, zerbitzu eta prestazio batzuei buruz ari gara, zeinen bidez bermatzen baitzaizkio gizarte osoari hainbat eskubide eta erantzuten baitzaie hainbat beharri; hain zuzen ere, bizitza kolektiboaren kalitatean duten garrantziagatik sozial deitzen zaie.

Gizarte Babeseko Euskal Sistema hau, bere espezifikotasunak barne, demokrazia garaian joan da ehuntzen. 38 urte baino gehiago osasun alorreko eskumenak kudeatzen, esfortzu eta erabakitasunez, paziente, profesional, gizarte-eragile eta osasun-agintarien aldetik. Horrelaxe lortu da Gizarte Babeseko Euskal Sistema eredu izatea asistentzia- kalitatean eta ongizatean, gai izanik, gainera, sistemaren jasangarritasunari eusteko.

Tolosara etorrira, zerbitzu hau doan ematen da Asuncion klinikaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko kontzertazioaren bidez. Kontzertazio hori Tolosako herriak aho batez erreklamatu zuen Udalean zituen ordezkarien bidez, Tolosaldeak eskualde-ospitale bat izan zezan, pazienteak Zumarragara edo Donostiara joan beharrik izan gabe. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritza izan da ahalbidetu duena klinika pribatu batek, kontrol publiko guztiei lotuta, zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa ematea.

Horregatik, egoera honek Tolosaldeko osasungintzari une honetan nola eragiten dion ikusita, normaltasun laborala, asistentziarena eta era guztietakoa berreskuratze aldera:

- 1.- Eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuari, bere eskumenak erabilita, eskura dituen neurriak har ditzan Asuncion Klinikako enpresak eta langileek berehala konpon dezaten hilabeteak daramatzan lan-gatazka.
- 2.- Eskatzen diogu bermatzen jarrai dezala doakotasuna, unibertsaltasuna eta kalitatea Tolosaldeko herritarrei ematen dien asistentzia-zerbitzuan, berdinduta —gutxienez— EAEko beste eskualdekoek jasotzen dutenarekin.

Tolosa, 2018ko apirilaren 23a
EAJ-PNVko bozeramailea
Jokin Azkue Arrastoa

